IRAKASLEEN EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA ZERBITZUA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# H4: IPUINGINTZA ETA KONTALARITZA

## INFORMAZIO OROKORRA

| | |
|---|---|
| **IRAUPENA** | **10 ordu** |
| **NORI BIDERATUA** | Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko ikastetxe publikoak eta Hezkuntza Sailaren gainerako zentroak (hizkuntza eskolak, berritzeguneak, Hezkuntza Ikuskaritza, ISEI-IVEI institutua…).<br>Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko itunpeko ikastetxe pribatuak eta Hezkuntza Sailarenak ez diren ikastetxe publikoak.<br>C1 edo hizkuntza-agiri baliokideari dagokion euskara maila dutenak. |
| **ORDUTEGIA** | Irakastorduz kanpo |
| **NOIZ / NON** | 2025ko urtarrila - ekaina / 3 lurraldeetan |
| **HELBURUAK** | Ipuinak sortu eta kontatzeko beharrezko ezagutza, teknika eta baliabideak aztertu eta lantzea. |
| **EDUKI NAGUSIAK** | • Ipuinaren eta kontaketaren garrantzia<br>• Nola aukeratu edo nola sortu ipuinak, adina eta irakasmaila kontuan izanda<br>• Baliabideak: espazioa eta denbora; ahotsa, keinuak, begirada, onomatopeiak, isilaldiak…; irudiak, objektuak…<br>• Kontatzeko moduak aztertzea: irakurritakoa kontatzea, ozen irakurtzea, dramatizazioa… |
| **METODOLOGIA** | • Oinarri teoriko batzuetatik abiatuz hainbat adibide eta ideia ikusi eta landuko dira saioetan.<br>• Aktiboa eta parte-hartzailea, hezkuntza errealitatetik abiatuta.<br>• Praktikaren bidez edukiak bizipen bihurtuko dira ikasleek barnera ditzaten.<br>• Materialak (paperean nahiz formatu digitalean) eskuragarri izango dituzte ikasleek. |

IRAKASLEEN EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA ZERBITZUA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# H5: EUSKAL KANTAK ETA JOLASAK

## INFORMAZIO OROKORRA

| | |
|---|---|
| **IRAUPENA** | **10 ordu** |
| **NORI BIDERATUA** | Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko ikastetxe publikoak eta Hezkuntza Sailaren gainerako zentroak (hizkuntza eskolak, berritzeguneak, Hezkuntza Ikuskaritza, ISEI-IVEI institutua…).<br>Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko itunpeko ikastetxe pribatuak eta Hezkuntza Sailarenak ez diren ikastetxe publikoak.<br>C1 edo hizkuntza-agiri baliokideari dagokion euskara maila dutenak. |
| **ORDUTEGIA** | Irakastorduz kanpo |
| **NOIZ / NON** | 2025ko urtarrila - ekaina / 3 lurraldeetan |
| **HELBURUAK** | Euskal jolas eta abestiak ezagutzea praktikaren bitartez. Jolasetan trebatzeko arauak eta barne-logika ulertzea. |
| **EDUKI NAGUSIAK** | • Jolasa eta ekintza: ingurune soziala eta fisikoa<br>• Jolasa eta psikomotrizitatea<br>• Komunikazioa kantuen bidez: kontaketa, iragarpenak eta arrazonamendu logikoak<br>• Jolasak eta kantuak: irudimena, norbere buruaren proiekzioa |
| **METODOLOGIA** | • Euskal jolas eta abestien inguruko baliabideak aurkeztea, adinkako egokitasuna kontutan hartuta.<br>• Aktiboa eta parte-hartzailea, hezkuntza errealitatetik abiatuta.<br>• Metodologia berritzailea eta praktikoa erabiliko da, aniztasuna eta hezkidetza kontuan harturik.<br>• Idatzizko nahiz ikus-entzunezko materialak izango dituzte eskuragarri ikasleek. |

IRAKASLEEN EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA ZERBITZUA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# H11: HIZKUNTZAREN ZUZENTASUNA ETA EGOKITASUNA.

## INFORMAZIO OROKORRA

| | |
|---|---|
| **IRAUPENA** | **20 ordu** |
| **NORI BIDERATUA** | Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko ikastetxe publikoak eta Hezkuntza Sailaren gainerako zentroak (hizkuntza eskolak, berritzeguneak, Hezkuntza Ikuskaritza, ISEI-IVEI institutua…).<br>Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko itunpeko ikastetxe pribatuak eta Hezkuntza Sailarenak ez diren ikastetxe publikoak.<br>C1 edo hizkuntza-agiri baliokideari dagokion euskara maila dutenak. |
| **ORDUTEGIA** | Irakastorduz kanpo |
| **NOIZ / NON** | 2024ko iraila - abendua / 3 lurraldeetan |
| **HELBURUAK** | Euskara batua edo estandarra zertan den jakitea. Idatzizko zein ahozko komunikazioari lotutako ezaugarriak aztertuz, eta komunikazio trebetasuna hobetzeko estrategiak, baliabideak eta ereduak ezagutu eta baliatzea. Zalantzak argitzea eta akatsak zuzentzea. |
| **EDUKI NAGUSIAK** | • Euskaltzaindiaren batasun-arauak eta erabakiak: Euskara Batuaren Eskuliburua.<br>• Euskara zuzen eta egoki erabiltzeko baliabideak: estilo-liburuak, kontsulta zerbitzuak, Euskaltzaindiaren web-orria…<br>• Europako Erreferentzia Marko Bateratua (idazmena eta mintzamena).<br>• Testu motak.<br>• Ahozko eta idatzizko testuak sortzeko eta zuzentzeko baliabideak.<br>• Erregistro formala: hasierak eta bukaerak, argudio motak, diskurtsoa eraikitzeko baliabideak.<br>• Ikasleen euskara maila aztertuta, haien beharretara egokituko dira helburu zehatzak eta edukiak. |

## METODOLOGIA

- Eduki teorikoen aurkezpena.
- Ariketa praktikoak.
- Gogoeta teorikotik abiatuta, parte hartzaileek euren praktika didaktikoa aztertu eta idatzizko komunikazioa hobetzeko jarduerak garatuko dituzte, IKTek egun eskaintzen dituzten baliabide anitzak kontutan hartuta.
- Zalantzak galdetzeko eta eztabaidatzeko aukera.
- Metodologia aktiboa eta parte-hartzailea, hezkuntza errealitatetik abiatuta.
- Materialak (paperean nahiz formatu digitalean) eskuragarri izango dituzte ikasleek.

IRAKASLEEN EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA ZERBITZUA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# H12: EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEA: IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEKO OINARRIAK ETA TRESNAK IKASGELARAKO ETA IKASGELAZ KANPORAKO

## INFORMAZIO OROKORRA

| | |
|---|---|
| **IRAUPENA** | **14 ordu** |
| **NORI BIDERATUA** | Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko ikastetxe publikoak eta Hezkuntza Sailaren gainerako zentroak (hizkuntza eskolak, berritzeguneak, Hezkuntza Ikuskaritza, ISEI-IVEI institutua…).<br>Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko itunpeko ikastetxe pribatuak eta Hezkuntza Sailarenak ez diren ikastetxe publikoak.<br>C1 edo hizkuntza-agiri baliokideari dagokion euskara maila dutenak. |
| **ORDUTEGIA** | Irakastorduz kanpo |
| **NOIZ / NON** | 2024ko iraila - abendua / 3 lurraldeetan |
| **HELBURUAK** | Ikasgelan eta ikasgelaz kanpo irakasleen bidez ikasleen euskararen erabilera indartzeko oinarriak eta tresnak aurkeztea, eta horiek aurrera eramateko prozedurak aztertzea. |
| **EDUKI NAGUSIAK** | • Eskolaren norabidea, mugak eta aukerak<br>• Oinarrizko prozedura: irakasle guztiek ikasleen euskararen erabilerarekiko hartu beharreko jarrera<br>• Jarduerak egokitzea: hizkuntzari eta ahozkoari saioetan lekua egiteko prozedura, adibideak eta horien plangintza egiteko moduak.<br>• Elkarrizketa itxiak eta hizkuntza-jolasak: ahozkoa egiturak lantzeko dinamikak eta horiek programazioan txertatzeko proposamenak.<br>• Patio ordura begirako jarduerak: oinarriak eta proposamenak. Irakasleek dinamizatutako edota ikasleek dinamizatutako jarduerak.<br>• Osagarriak: Auspoa programako euskara indartze saioetarako proposamenak eta edukiak<br>• Hizkuntza-sozializazioa: jarreren lanketa eta hizkuntza-ohituren gaia hizkuntza-sozializazioaren eremuan kokatzea. |

- Hizkuntza-ohituretan eragiten duten faktoreak: aztertzea eta ikasleek hizkuntzekin nolako harremana duten ikustea.
- Jarreretan eragiteko jarduerak: testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuz ikastetxeetan aurrera eraman daitezkeen jarduerak ikustea eta irakasleek eskolan erabili ahal izateko prestatzea.
- Hizkuntza-ohituretan edo hizkuntza-arauetan eragiteko jarduerak: Ahobizien ezaugarrietako dinamika egokituak aurkeztea eta ikastetxeetan aurrera eramateko kontuan hartu beharrekoak lantzea.
- Gurasoak eta eskola norabide berean: familiei irakasleen bidez guraso bileretan emateko mezuak, familien kezken erantzunak eta eskolaren norabide berean aritu daitezen proposamenak. Horiek eskolako plangintzan txertatzeko bideak ikustea.
- Ikasleak hizkuntza-ohituretan eragile izan daitezen oinarriak eta proposamenak: ikasleen euskara batzordeei begirako oinarriak eta dinamizaziora begirako proposamenak.
- Testuinguruan eragiteko proposamenak: eskola orduz kanpoko jardueretako antolatzaile eta hezitzaileengan eragitera begirako oinarriak eta tresnak.

## METODOLOGIA

- Oinarri teorikoen aurkezpena.
- Parte-hartzaileen hezkuntza-testuingurura egokitutako hausnarketa eta edukiak landuko dira.
- Dinamika eta ariketa praktikoak, lantzen diren edukiak modu argian ikusteko eta erabilgarritasuna baloratu ahal izateko.
- Talde-lan kooperatiboaren bitartez, interbentzio-plan orokor baten eraikuntza eta lanaren aurkezpena.
- Materialak (paperean nahiz formatu digitalean) eskuragarri izango dituzte ikasleek.

IRAKASLEEN EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA ZERBITZUA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# I1: IKASLEEN GAITASUN KOMUNIKATIBOA HELBURU IZANIK, EUSKARAREN IRAKASBIDEAK HOBETZEKO METODOLOGIA IKASTAROA

## INFORMAZIO OROKORRA

| | |
|---|---|
| **IRAUPENA** | **14 ordu** |
| **NORI BIDERATUA** | Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko ikastetxe publikoak eta Hezkuntza Sailaren gainerako zentroak (hizkuntza eskolak, berritzeguneak, Hezkuntza Ikuskaritza, ISEI-IVEI institutua…).<br>Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko itunpeko ikastetxe pribatuak eta Hezkuntza Sailarenak ez diren ikastetxe publikoak.<br>C1 edo hizkuntza-agiri baliokideari dagokion euskara maila dutenak. |
| **ORDUTEGIA** | Irakastorduz kanpo |
| **NOIZ / NON** | 2025ko urtarrila - ekaina / 3 lurraldeetan |
| **HELBURUAK** | Euskara irakasteko eta trebetasun komunikatiboak garatzeko teknikak ezagutu eta lantzea. |
| **EDUKI NAGUSIAK** | • Hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboaren oinarriak<br>• Ikuspegi komunikatiboaren aplikazio praktikoa hizkuntzen irakaskuntzan<br>• Hizkuntza konpetentzia nola ebaluatu: zer ebaluatu eta ebaluazio-tresnak |
| **METODOLOGIA** | • Oinarri teorikoen aurkezpena.<br>• Zalantzak galdetzeko eta eztabaidatzeko aukera.<br>• Gogoeta teorikotik abiatuta, parte hartzaileek euren praktika didaktikoa aztertu eta euskarazko gaitasun komunikatiboa geletan lantzeko jarduerak garatuko dituzte, IKTek egun eskaintzen dituzten baliabide anitzak kontutan hartuta.<br>• Esperientzien eta praktika onen elkartrukatzea.<br>• Materialak (paperean nahiz formatu digitalean) eskuragarri izango dituzte ikasleek. |

IRAKASLEEN EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA ZERBITZUA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# I7: AHOZKO HIZKUNTZAREN LANKETA

## INFORMAZIO OROKORRA

| | |
|---|---|
| **IRAUPENA** | **30 ordu** |
| **NORI BIDERATUA** | Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko ikastetxe publikoak eta Hezkuntza Sailaren gainerako zentroak (hizkuntza eskolak, berritzeguneak, Hezkuntza Ikuskaritza, ISEI-IVEI institutua…).<br><br>Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko itunpeko ikastetxe pribatuak eta Hezkuntza Sailarenak ez diren ikastetxe publikoak.<br><br>C1 edo hizkuntza-agiri baliokideari dagokion euskara maila dutenak. |
| **ORDUTEGIA** | Irakastorduz kanpo |
| **NOIZ / NON** | 2025ko urtarrila - ekaina / 3 lurraldeetan |
| **HELBURUAK** | Ikastetxe bakoitzeko testuinguru soziolinguistikotik abiatuta, ahozko hizkuntza lantzeko metodologietan sakontzea, oinarri teorikotik praktikarako jauzia eginaz, material didaktiko zehatzak egokituz eta gela barruan aplikatuz (ikasle eta irakasleekin). Era berean, eskolak Hizkuntza Normalizazioan duen presentziaz eta erabileran eragiteko duen ahalmenaz gogoeta egitea, eta arlo ezberdinetako irakasgaietan ahozko komunikazioa ustiatzeko aukerak hobeto ezagutzea. |

**EDUKI NAGUSIAK**

- Ahozkotasunak Hezkuntza Arautuan duen presentziaz jabetzea.
- Komunikazio-gaitasunean eragiten duten praktika onak.
- Arlo ezberdinetako irakasgaietako eduki linguistikoak.
- Elkarrekintzan oinarritutako jarduera eraikitzaileak.
- Ahozkotasuna ikastetxe bakoitzeko testuinguru soziolinguistikoaren behatokitik aztertu eta erabakiak hartzea.
- Ahozkotasuna lantzeko ondorengo 3 guneetan sakontzea: metodologiak ezagutu, material didaktikoak diseinatu eta praktikara eramatea, gogoeta bultzatuz.
- Diseinatutako praktiken ebaluazioa egitea.
- Ikastetxe bakoitzean aurrera begirako erabakiak proposatzea.

## METODOLOGIA

- Kontzeptu-eremua azaldu.
- Metodologia aktiboa eta parte-hartzailea, hezkuntza errealitatetik abiatuta.
- Gogoeta teorikotik abiatuta, parte hartzaileek euren ikastetxeetako testuinguru soziolinguistikoa aztertu eta ahozkotasuna lantzeko dituzten aukerak aztertuko dituzte, IKTek egun eskaintzen dituzten baliabide anitzak kontutan hartuta.
- Parte-hartzaileen hezkuntza-testuingurura egokitutako hausnarketa eta edukiak landuko dira.
- Ikasmaterialetan ahozko komunikazioaren lanketa bideratzeko ariketak proposatzea.
- Materialak (paperean nahiz formatu digitalean) eskuragarri izango dituzte ikasleek.

IRAKASLEEN EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA ZERBITZUA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# I8: HIZKUNTZA TRATAERA INTEGRALA GARATZEN.

## INFORMAZIO OROKORRA

| | |
|---|---|
| **IRAUPENA** | **18 ordu** |
| **NORI BIDERATUA** | Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko ikastetxe publikoak eta Hezkuntza Sailaren gainerako zentroak (hizkuntza eskolak, berritzeguneak, Hezkuntza Ikuskaritza, ISEI-IVEI institutua…).<br>Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko itunpeko ikastetxe pribatuak eta Hezkuntza Sailarenak ez diren ikastetxe publikoak.<br>C1 edo hizkuntza-agiri baliokideari dagokion euskara maila dutenak. |
| **ORDUTEGIA** | Irakastorduz kanpo |
| **NOIZ / NON** | 2025ko urtarrila - ekaina / 3 lurraldeetan |
| **HELBURUAK** | Hizkuntzen Trataera Integrala garatzera begira, edozein arlo edo proiektuetan hizkuntza alderdia nola landu daitekeen, zer egin daitekeen eta eman behar diren urratsak ezagutzea eta bakoitzak bere arlo baterako proposamena bideratzea. |

### EDUKI NAGUSIAK

- Hizkuntza Trataera Integrala eta Hizkuntza Trataera Integratua. Bakoitzaren ezaugarriak eta bien arteko lotura.
- Oinarriak: Ikuspegi komunikatiboa
- Arloen bitartez hizkuntza ere lantzen.
- Ekintza komunikatiboak lantzea ikas-maila desberdinetan testu-generoak erabiliz eta ikasleen irteera profilak kontuan hartuz.
- Zer landuko den hizkuntza-arloetan eta zer/nola beste arloetan edo proiektuetan. Arloen ezaugarriak kontuan hartuz, zein testu-genero landu daitezkeen zehaztea, eta arloetan zer eta nola landu aurreikustea: hizkuntzaren lanketa bistaratzea, ulermen estrategiak, errubrikak eta abar.

## METODOLOGIA

- Oinarri teorikoen aurkezpena.
- Gogoeta teorikotik abiatuta, parte hartzaileek euren praktika didaktikoa aztertu eta Hizkuntza Trataera Integralak ematen dituen aukerak landuko dituzte, IKTek egun eskaintzen dituzten baliabide anitzak kontuan hartuta.
- Irakasleen arteko interakzioaz eta talde-lan kooperatiboaren bitartez, interbentzio-plan orokor baten eraikuntza eta lanaren aurkezpena.
- Esperientzien eta praktika onen elkar trukatzea.
- Materialak (paperean nahiz formatu digitalean) eskuragarri izango dituzte ikasleek.